

GAURKOA

Espainiar legearen murrua

Z arata apur bat atera du joan den astean Azpeitiko Udal Ordenantzaren aurka Madrilek eman duen debekuak. Azpeitiko erabakia ez da atzokoa, iaizko Urtarrilaren 23koa baizik (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

2006-1-30ean argitaratua). Madrilek *niet* esan du eta, beraz, Azpeitiko Udalak xeheki prestatutako Ordenantza bikaina ezeztaturik geratu da.

Ez dute Azpeitiko erdalduen herritarrek salatu. Ez. Paulino Luesmak berak egin du; agindua funtsatzeko arrazoinak Estatuaren Abokatuaren txostenean aurkiturik.

Euskal Herriak aspaldi honetan jasaten duen eraso orokorrean nahasirik, erreparatu ere ez da egin ia-ia. Ezker Abertzaleek eta Kontseiluak bai, ozenki salatu dute euskararen kontrako ostikoa. Baina espainiar indarrek gezur galantak hedatu dituzte berehala: Azpeitiko erdalduen gutxiengoak «diskriminatuta» geldituko litzatekeela, euskara «inposatu» nahi dela, eta abar.

Kontseiluko Iñaki Lasak egokiro errepikatu duenez, Euskal Herriko bazter guztietan euskaldunen eskubideak sistematikoki eta etengabe urratzen direlarik, Azpeitiko Ordenantzak urratuko omen litzukeen erdalduen eskubideak aipatzea, arazoa oso larria ez balitz, «gustu txarreko bromatzat» har liteke. Euskaraz bizi nahi dugunok egunero jasaten ditugu, maila eta alor guztietan, mila purrustada eta mila mespretxu instituzio guztietan (autonomikoetan barne); eta oraindik ere Tribunal Superior de Justicia del País Vasco deritzonak hartutako erabakia, horretara, irain hutsa da.

Zer erabaki du bada Azpeitiko Udalak? Autonomi Estatutua (1979-12-18); eta Euskararen

Txillardegi
Idazlea eta
hizkuntzalaria

Erabilpena arautzeko Legea (1982-XI-24), Garaikoetxea-Etxenikeren eraginez bozkatu eta legezatu zena, bultzatzea bilatu da. 21 urte joan dira geroztik, eta Azpeitian eta non-nahi nora iritsi garen garbi baitago. Hots, «Azpeitian erroldatuta dauden 13.000tik gora biztanleen %5ek bakarrik ez du euskara ezagutzen», irakurtzen dugu Ordenantzaren Alegia, %95 direla euskaldunak Azpeitian. Non aurrera joko, Azpeitian ez bada? Julian Eizmendi alkatea, bestalde, eta gaizki ez banago, EAJko kidea da.

Dena legetasunaren barruan bideratzen saiatu dira Azpeitiko agintariak, Ordenantzaren bertan azaltzen denez: «Arauzko jendaurreko informazio epean ez da erreklamazio edo oharpenik egin. Hori dela eta, orain artean behin-behineko zen akordioa behin betikoa bihurtuko da». Ez da egia, beraz, Azpeitiko erdalduen bazterturik edo «diskriminaturik» gelditu direnik.

Irakur dezagun: «Herritarrak udal langileekin harremanetan jartzeko erabiltzen duten hizkuntza ofizialean jasoko du udal langilearen erantzuna» (4. art.)

Udalarekiko harremanak espainieraz izan

Azpeitiko Ordenantzak urratuko omen

lituzkeen erdalduen eskubideak

aipatzea «gustu txarreko bromatzat»

har liteke. Euskaraz bizi nahi dugunok

egunero jasaten ditugu mila purrustada

eta mespretxu instituzio guztietan

nahi duenak espainieraz jasoko du: bai ahozko erantzuna bai eskatutako dokumentazio guztia.

Azpeitiko Ordenantzak elebitasuna onartzen du oinarri, eta eskubide pertsonalak errespetatzen ditu. Ez dago inolako lurraldetasunik; Belgikako, Suitzako edo Suomiko glotopolitikatik urrun. Hitz batez, Ordenantzako soluzioa malgua da erabat.

Baina, hau bai, «hizkuntzaren erabilera erreala bilatzen da, eta ez bakarrik teorikoa» (Ordenantzaren Hitzaurrean).

Hezkuntzaren alorrean (6.art.) irakaskuntza osoa euskaraz burutzeko eskubidea bermatzen da.

Osasun zerbitzuetan (egoera negargarrian, euskaldunok ongi dakigunez) hiritarrari lehenengo hitza euskaraz eskaintzen zaio; horrela konfiantza giroa sortzeko eta gero, noski, harreman osoa euskaraz burutu ahal izatea (7.art.).

Justiziaren alorrean (gaur arte espainiera hutsez ari izana) euskara sartzen hasia proposatzen da (8.Art.).

Eta polizien alorrean (Estatuarenak barne), Kataluñan ausarki egin dutenaren bidetik, euskaraz mintzatzeko eskubidea aldarrikatzen da: «Estatuko indar eta segurtasun eraginkortasunez euskaraz harrera egin eta erantzun diezaieten eskubidea» (9b. art.).

Oso egokia ere pertsonalaren kontratazioan hizkuntza galga irmo ipintzeko erabakia (16-2.Art.).

Zer gertatu da, hortaz? Euskararen Erabilpenaren Legeko 8.3 puntuan (1982) gertatu zena. Hau esaten baitzuen Eusko Jaurlaritzak: «*Los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del euskera para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación socio-lingüística del municipio no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos*». Baina Madrileko Auzitegi Konstituzionalak (82/1986 ebazpena) inpugnatu egin zuen puntu hori. Eta horretan gaude, UEMAK ongi dakienez.

Zer dio Elebidek gertakari hits hauen aurrean? Plegu honetako gertakarien ondorioz, dimisioak egon ziren Nafarroako Unibertsitatean. Hemen?

Eskola ereduaren alorrean «malgutasuna» eskatzen zaigun une berean, Madrileko murruren gotortasuna topatzen dugu.

«Zerbait» ikusiko dugula uste dute baikorrenek. Beste batzuek, aldiz, Ordenantza zulora joango dela eta kitto.

Gauden beha!

GUTUNAK

Dos cumbres guipuzcoanas en peligro

XABIER ABIAN SUESKUN

Miembro de Ekologistak Martxan

Quisiera exponer algunas reflexiones en torno al artículo de Antxon Iturriza sobre los parques eólicos en los montes Gazume y Mendibeltz. No conozco de cerca el caso, no sé si se han proyectado bien o mal, aunque comprendo que duela ver modificado el paisaje por los molinos y los impactos ambientales. De todas formas, al ciudadano medio le parece lo más natural del mundo el gran consumo energético que hacemos a diario y que tengamos a nuestra disposición combustibles baratos y de calidad. Apenas nos preocupan las consecuencias de la extracción de pe-

tróleo y gas natural en los ecosistemas del Tercer Mundo. Tampoco parecen importarnos las consecuencias devastadoras del cambio climático para los ecosistemas del planeta en el futuro.

Es fundamental el desarrollo de las energías renovables en la lucha contra el cambio climático. Es una lucha contra el tiempo y de ella depende la conservación de la naturaleza y el mundo que vamos a dejar a las generaciones futuras.

Los daños ambientales que crean los parques eólicos son pequeños y asumibles en comparación con centrales térmicas como Boroa o las centrales nucleares. También afectan al paisaje, pero deberíamos hacer un ejercicio de humildad y aceptarlos; se derivan de nuestro estilo

de vida. No vale exportar al Tercer Mundo las consecuencias ambientales de nuestra política energética. Habría que reducir muchísimo el consumo energético actual y buscar la eficiencia, pero de algún lado tiene que salir la energía que consumimos.

Mujeres perfectas

EIDER BERGANZA EGIARTE

Amezketza

A propósito de la reciente campaña publicitaria de ciertos diseñadores italianos, la publicidad sexista vuelve a ser objeto de debate. Y es que una imagen de cuatro hombres contemplando impasibles cómo un energúmeno retiene por la fuerza a una mujer no deja indiferente a la

opinión pública. Pero me pregunto yo si no hay cierta demagogia e hipocresía cuando se tratan estos temas. Para comprender a qué me refiero basta con dirigirse a esa gran aportación que es la televisión. Eso sí, sin sacar las cosas de contexto. Reconozcamos que ya no se emiten anuncios con eslóganes del calibre de «pórtate bien para que tu marido te compre tal lavadora». La imagen de la mujer se ha adaptado a nuestros tiempos y las empresas publicitarias han creado un nuevo estereotipo que, permítanme, denominaremos «la mujer perfecta». Se trata de esa mujer independiente, con trabajo remunerado, que además de tiempo para dedicarse a las tareas del hogar tiene tiempo para estar siempre perfecta y en línea. La

misma que consume alimentos bajos en calorías, con bifidos, omega 3 y un montón de bioporquerías que no existen en el mundo de las mujeres reales. Se pone unos vaqueros bien ajustados, cuida de sus hijos, conduce y tiene tiempo de ir al gimnasio para quemar todas esas calorías que paradójicamente no ha ingerido. Por no hablar de la costumbre de utilizar el cuerpo de la mujer para promocionar cualquier producto. O de productos relacionados con el cuidado del hogar dirigidos al público femenino, mientras las nuevas tecnologías tratan de convencer al público masculino.

En fin, la publicidad refleja fielmente nuestra sociedad, y no cambiará hasta que cambien definitivamente los valores.